

**NBE**



## **Ekonomia eta Gizarte Arazoetako Kontseilua**

Banak. orokorra  
2009ko abenduaren 11n,  
Gaztelera. Jatorrizkoa: Ingelesez.

---

### **Estatistika Batzordea.**

#### **41. bilera aldia.**

2010eko otsailaren 23tik 26ra,  
behin-behineko programako\* 3. gaiko i) atala.

#### **Eztabaidagaiak eta erabakiak hartzeko:**

Estatistikaren Mundu Mailako Eguna.

## **Estatistikaren Mundu Mailako Eguna Idazkari Orokorraren txostena**

### **Laburpena**

Txosten hau Estatistika Batzordeak 40. bilera aldian egindako eskaerari erantzunez prestatu zen (ikus E/2009/24). Bertan, 2010eko urriaren 20an (2010-10-20) Estatistikaren Mundu Mailako Eguna antolatzeko proposamena ageri da, estatistika ofizialen lorpen ugariak ospatze aldera. Estatistikaren Mundu Mailako eguna ohiz kanpoko ekitaldi gisa proposatzen da, horrelako ekitaldiak ospatzeko tradizio nazional eta eskualdeko ugarietan oinarrituta. Horrela, bereziki azpimarratuko litzateke lankidetzaren mundu osoko estatistikarien artean mundu mailako estatistika sistemaren barruan. Proposatutako Estatistikaren Mundu Mailako Egunarekin zerbitzu, osotasun eta profesionaltasuneko oinarritzko balioetan oinarritutako estatistika ofizialek egindako ekarpen ugari buruzko kontzientziarazioa lortu nahi da. Batzordeari Estatistikaren Mundu Mailako Eguna 2010eko urriaren 20an (2010-10-20) ospatzea onartzeko gonbitea luzatzen zaio. Txostenaren 12. paragrafoan beste eztabaidagai batzuk adierazten dira.

### **I. Aurrekariak**

1. Estatistika ofizialek geroz eta funtzio handiagoa dute gure gizarteetan eta administrazio publikoetan. Kalitate altuko datu estatistikoak eskuratzea erraza da orain esparru nazionalean, eskualdekoan eta mundu mailakoan. Sistematikoki erabiltzen dira eztabaida publikoetan, politikak eratzekoan eta enpresa erabakiak hartzerakoan. Estatistika sistema nazionalak estatistika ofizialak bildu eta barreiatzeko ardura eman zaie, eta horiek bilakaera jasan dute herrialde guztietan ezarpen nazional garrantzitsu bihurtu arte. Ildo beretik, estatistikari buruaren funtzioa ere onartu egin da ezagutzen eta azterketa estatistikoaren iturri inpartzial gisa. Kalitate altuko estatistika ofizialak sortzeko konpromisoak hainbat modutara ageri dira, bai

biztanleria erroldak, etxez-etxeko inkestak edo enpresetan egindakoak edo datu administratiboen sistemak egitearen bitartez, bai barne produktu osoaren neurketaren bitartez, Milurtekoaren Garapen Helburuen edo prezioen bitartez edo jaiotza eta heriotzen estatistiken bitartez. Estatistika sistema nazionalak ezinbesteko ezarpen nazional bihurtu dira.

**2.** 1994. urtean Estatistikako Batzordeak estatistika ofizialen oinarrizko Printzipioak onetsi zituen, eta hori gertaera gogoangarria izan zen estatistika ofizialen oinarrizko balioen kodifikazioan eta sustapenean. Hastapen haietan, bestak beste, oinarrizko balioak sartu eta sustatu ziren, adibidez komenigarritasuna, inpartzialtasuna, etika eta arau profesionalak, kontuak ematea eta gardentasuna. Esparru nazionalean, balio horiek estatistikari buruzko legetan sartuta daude maiz; horietan, bermatu egiten da estatistika sistemaren askatasuna eta babesa ematen da osotasun profesionalerako. Estatistika sistema funtzional baten oinarrizko balioetako askok zerikusia dute halabeharrez estatistika ofizialen kalitatearekin, eta, horregatik, baita administrazio publikoen, ekonomien eta jendearen eskura dagoen informazioaren kalitatearekin ere.

**3.** Esparru nazionalean, estatistika ofizialek lagundu egiten dute ekonomiaren, demografiaren, gizarte eta osasun gaien eta ingurumenaren esparru zehatz ugari garatzen, izan ere, oinarrizko datuak eman dituzte plangintza eta jarraipen xedeetarako. Horiek gabe esparru horien garapena zaildu egingo litzateke larriki, eta ezin izango lirateke politiken aurrerapenak edo arrakastak neurtu. Estatistika ofizialetan lorpen ezagunenetako bat biztanleria errolda eta etxebizitzarena dira. Herrialde eta zona kopuru eskerga batek errolda hori egiten du 10 urtero, eta edozein gizarteko galdera oinarrizkoenetako batzuei erantzuten die honek: Zenbat gara? Nor gara? Nola bizi gara? Izan ere, 2010. urtean, mundu osoko herrialde ugari egingo ditu biztanleria erroldak.

**4.** Estatistika sistema nazionalen arteko lankidetzak luze eta paregabeak ere aukera eman du mundu mailako estatistika sistema eratzeko. Bertako kideek hizkuntza komuna erabiltzen dute beren esperientziak partekatzeko eta mundu mailako esparruan estatistika ofizialak sustatzeko. Mundu mailako esparruko estatistika ofizialen lorpen handienetako bat nazioarteko metodo eta estandarrak lantzea izan da; epe luzera datuak bildu eta trukatzeko nazioarteko plataforma eratzeari ahalbidetu dute, esparru nazionalean metodo eta estandar horien bitartez eta ondoren eskualde eta nazioarte esparruetan datu alderagarriak sortzearen bitartez. Lorpen berrienak hauek izan dira: Kontu Nazionalen Sistemaren onespina 2008. urtean, Nazioarteko Alderaketa Proiektua amaitzea, biztanleria eta etxebizitza erroldetarako printzipioei eta gomendioei buruzko erabakia, sektoreko estatistika ezberdinen jarraibide metodologikoen onespina eta Jarduera Ekonomiko guztien Nazioarteko Sailkapen Industrial Bateratuaren laugarren berrikuspena.

## **II. Estatistikaren Mundu Mailako Eguna: helburu nagusia eta gaia**

**5.** Estatistika ofizialen lorpen horiek eta beste hainbat ospatzeko, Nazio Batuen Estatistika Dibisioak Estatistikaren Mundu Mailako Eguna ospatzea proposatu zuen eta hura antolatzeari ekin zion. Ospakizuna, bere horretan, ez da berria. Izan ere, 100 herrialdetik eta zonatik gorak ospatu du azkenaldian estatistikaren egun bat, aste bat edo hilabete bat. Xedea estatistika ofizialei garrantzi handiagoa ematea izan da, bai herrialde horietako datu horien hornitzaileen artean, bai erabiltzaileen artean. Gertaera horiek ospatzeko moduan aldeak badaude ere (gutxi gorabehera 80 herrialdek ospatzen du urtero estatistikaren egun bat, beste herrialde batzuk

astebeteko iraupena duten jarduerak antolatzen dituzte edo estatistikaren egun bat ospatzen dute bost urtero edo gertakari bakar gisa egin zuten), guztiek helburu komuna dute: estatistika ofizialak ikusgaitasun handiagokoak bihurtzea. Herrialdeek estatistikaren egun nazionalaren aukera aprobetxatzen dute produktu estatistiko garrantzitsuak martxan jartzeko edo politikak lantzeko ardura dutenen eta jendearen babesa lortzeko estatistika proiektu adierazgarrietarako.

**6.** Estatistikaren Mundu Mailako Eguna, salbuespeneko gertaera gisa aurreikusi dena, mundu mailako osagaia emango lieke momentuz nazionalak edo eskualdekoak bakarrik diren ospakizunei, eta horrek gaur arte jada existitzen diren estatistikaren egunek lortutako eraginak biderkatzea eragin dezake, herrialde gehiago estatistikaren lorpenak ospatzera animatuz.

**7.** 2008ko irailean, Estatistikako Dibisioak eskatu egin zien herrialdeei eta eskualde eta nazioarteko erakundeei beren iritziak eman ziezazkiotela Estatistikaren Mundu Mailako Eguna 2010eko urriaren 20an (2010-10-20) ospatzeko proposamenari buruz. Kontsultaren emaitza erabateko babesa izan zen ekimenarentzat, eta hori jakinarazi zitzaion Estatistika Batzordeari Dibisioaren zuzendariak 40. bilera aldian adierazitako programa gaiei buruzko adierazpenean (2009ko otsailean egindakoa). Gutxi gorabehera 75 herrialde eta nazioarteko erakunde izan zen babesa adierazi zutenak, eta estatistika ofizialen lorpen guztiak ospatzeko eta estatu, eskualde eta mundu mailako esparruetan ikusgaitasuna areagotzeko egun berezi hori aitortzeko unea iritsi zela berretsi zuten.

**8.** Erantzun positibo nabarmena oinarri hartuta, Estatistika Dibisioak Estatistikaren Mundu Mailako eguna 2010eko urriaren 20an (2010-10-20) ospatzeko proposamena amaitu du. Herrialde askok biztanleria erroldak egingo dituztenez 2010. urtearen inguruan, urte hau egun hori ospatzeko aukeratzeak lagundu egingo du estatistika sistema nazionalak emandako zerbitzuen aitortzea sendotzen. Biztanleria errolda bat lantzea bake garaian herrialdeek garatzen duten bakarkako eragiketa zabal, konplexu eta garestiena da; benetan egiteko zaila da eta, hala eta guztiz ere, estatistikari ofizialek ezin hobeki egiten dute.

## **A. Helburua**

**9.** Estatistikaren Mundu Mailako egunarekin zerbitzu, osotasun eta profesionaltasuneko oinarritzko balioetan oinarritutako estatistika ofizialek egindako ekarpen ugari buruzko kontzientziarioa lortzen saiatuko da. Jende multzo zabalari zuzenduko zaio, eta bertan erabakiak hartzeko arduradunetatik eta datuen hornitzaileetatik hasi, datuen erabiltzaile den komunitateraino sartuko dira - orokorrean oso heterogeneoa-, esparru nazional, eskualdeko eta mundu mailakoan. Ospakizunak estatistikei emandako babesa piztuko du, erabiltzaileak eta estatistiken ekoizleak elkartuz. Estatistikaren Mundu Mailako Eguna ospatzearekin nazioarteko erakundeek, eskualdekoek eta azpieskualdekoek emandako zerbitzua ere aitortuko da, estatistika sistema nazionalen aurrerapena sustatu eta errazte aldera.

## **B. Ospatzeko metodoak**

**10.** "Estatistika ofizialen lorpen ugarien ospakizuna" lelopean, herrialdeek beren inguruabarretarako egokiak diren jarduerak hautatu ahal dituzte. Egin daitezkeen jardueren artean, mintegi nazionala, prentsa oharra edo erakusketa bat aipa daitezke. International Association for Official Statistics delakoak Eguna horretan inauguratuko du bere bihurtzeko konferentzia, xederako egokia den zeremonia batekin.

Nazioarteko eta eskualdeko erakundeei antzeko jarduerak antolatzeko gonbitea luzatzen zaie.

**11.** Estatistika Dibisioak orientazio eta koordinazio egokiak emango ditu edozein ekitaldi antolatzeko. Gaitasun estatistiko nazionala eta mundu mailako estatistika sistema bultzatzeko ohiko jardueren barruan, eta bereziki estatistika sistema nazionalari beren profil profesionala azpimarratzen laguntzeko, posible denean Dibisioak lagundu egingo die herrialdeei publizitatearekin, mintegien edo ikastaro praktikoen antolamenduarekin eta gertaera berezietako parte-hartzearekin.

### **III. Eztabaidagaiak**

**12.** Batzordeak agian zera nahiko du:

**a)** 2010eko urriaren 20a (2010-10-20) onartzea Estatistikaren Mundu Mailako lehen Egunaren data gisa. Data hori estatistika bulego nazionalak, azpieskualdekoek, eskualdekoek eta nazioartekoek ospatuko dute.

**b)** “Estatistika ofizialen lorpen ugarien ospakizunaren” gaia eta zerbitzu, osotasun eta profesionaltasuneko oinarritzko balioak onestea.

**c)** Nazio Batuen Estatistika Dibisioari eskatzea herrialdeei orientazio eta koordinazio egokia eman diezaietela Estatistikaren Mundu Mailako Egunaren ospakizunean eta antolatzen dituzten ekitaldiei publizitatea eman diezaietela.